



BERRIGARA

62. zenbakia

Jardun elkarte, Bergara


1992, apirilak 30



Jaiak
Labegarietan
astebukaeran



Abesbatzak,
primeran
igandean



Futbola:
gaztetxoentzat
txapelketa

Burberrys
Yuste
Unicen
Miguel Ibars
Lider
Exigency
Punto Blanco
Peyton

Gizonezkoentzako jantziak


egizabal

oinetakoak

Firma guzti hauen abala daukagu

CAMPER
Panama Jack
Privata
Runner
Pons Q.
Ferrerlas
Paco Herrero
George's

Levi'sek baimendutako denda



CRISTINA

Harruriaga z/g Tfnoa: 76 03 04 BERGARA

Cristinan era guztietako moda bakeroa!
Levi's • Caroché • Bonaventure

TELAETXE, S.A.

OIHAL ETA OIHAL PUSKAK



Aukera handia
oihal eta oihal pusketan
metroka zein pisura

Zetak, kortinak, toailak,
Yakareak, izarak, Tapizak,
e.a.

**LARUNBAT ARRATSALDETAN
IREKITA**

Elgetarako bidea
(Gasolindegitik 300 m.ra)
Tfnoa: 76 39 40 - 76 39 41 - 76 00 46
Faxa: 76 56 38, 20.570 BERGARA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:


BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Legе gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ASPACeren aldeko pelota jaialdia

antolatu du aurten ere Oxirondo Elkarteak. Larunbatean, frontoian, munduko txapelkun eta Bartzelonako Olinpiadetarako aukeratuak izan diren hainbat pelotarik hiru partidu interesgarri eskeiniko dituzte. Gazte, beterano eta afizionatu kategorietako partidu bana jokatu da. Larunbatean, 22.15etan.

OSTIRALA 1

• Labegarrietako jaiak:

- XXX. Txirindularitza Laisterketa 10.30etan.

- Meza nagusia 12etan. Ondoren, salda, txorizoa, dantzariak eta herri-kirolak.

- Tute txapelketa 4retan.

- Jokuak 5etan.

- *Daxka, Requiem* eta *Fucking what!* taldeen kontzertua 11etan.

• Eskubaloia:

- *Bergara-Arrate Txiki* (gazte mutilak), 10etan.

- *Bergara-Aloña* (kadete neskak), 11.45etan.

- *Bergara-Jauja* (senior gizonak), 12.30etan.

LARUNBATA 2

• Pelota:

- Urzainki-Urra/soroa III.-Andueza VI., Alustiza-Errasti/salaberria-Errandonea eta Loiarte-Andueza V./Telletxea-Garaita, 16.30etan.

• Labegarrietako jaiak:

- Marrazki lehiaketa 11.30etan.

- Mendi bizikleta 17etan.

- *EH Sukarra, Platero y tú* eta *Danba*, 23.00etan

• Eskubaloia:

- *Bergara-Arrate* (kadete mutilak), 16.15etan.

- *Bergara-Ereintza* (gazte neskak), 17.30tan.

FARMAZIAK



- 1 Camacho
- 2 Puy
- 3 Puy
- 4 Guallar
- 5 Estella
- 6 Mozos
- 7 Camacho
- 8 Puy

ZINEA



El cabo del miedo

- OSTEGUNA: 22.30.
- OSTIRALA: 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
- LARUNBATA: 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
- IGANDEA: 17.00, 19.30 eta 22.30etan.
- ASTELEHENA: 19.30.

Sombras y niebla

- OSTEGUNA: 19.30.

Socios y sabuesos

- IGANDEA: 11.30.

OGIA



- OSTIRALA: Mizpildi
- IGANDEA: Ogizun

MARKIEGI Automobilak

Automobil eta kamioien karrozeria

Leizeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA



ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA

Pena

Ikaratuta nago!. Azkenengo BERRIGARAN Jon Ander Bengoak bere idazlanean esaten du bakearen alde irtetzen geranak denon poltsikotik aterako dirulaguntza artzen degula.

Baño zer diru?. Guk ez degu iñungo dirulaguntzarik artzen, eta eman ere ez: ez dirurik eta ez izenik, bakar-bakarrik aurpegia ematen degu.

Batzuk pankarta batekin ateratzen dira "Bakearen alde" eta pakearen alde gaudenak aren ondoan jartzen gera zergatik guk pertsonaren bizitzarentzat errespetu aundia daukagulako. Orregatik ilketa bat dagoenean beti irtengo gera.

Ni JARDUN taldekoa naiz eta emendik eskatzen diot gure lendakariari ez uzteko BERRIGARAN orrelako gezurrik argitaratzen.

Pena eta pena aundia ematen dit gazteak orrelako gezur aundiak sinistuta ikusteak. Nora dihoa gure gaztedia?.

Lehendakari, arren kontuz, gure BERRIGARAN ez dedila orrelako gezurrik atera, zeren eta gu euskaltzaleak eta bakezaleak gera, baña baita egizaleak ere.

Asuntxi Idarreta Sañudo

Maiatzaren Lehena 1.992

Duela urtebete, Maiatzaren 1.aren bezperan, LABek publikoki esaten zuen behar beharrezkoa zela Fronte Sozial zabal bat sortzea Madril eta Bruselasko Gobernuen planak gordetzen zituzten gure herriko emantzipazio eta subiranotasun gogoan aurkako txantaila politikoa oztopatu eta geldiarazteko.

PSOEk gobernuan agertu ditu bere plan guztiak: desmantelamentu industrialak, langabezia, pobrezia eta marjinalazio gehiago, neurri estrukturalak Konberjentzia Planaren barruan, hauek dituzten ondorio sozio laboralaren larritasuna, esaterako, prestazio sozialen gutxitze generalizatua eta greba eskubidearekiko aurrez-aurreko eraso, 1.975 eta 1.985 artean martxan jarri zirenekin bakarrik konpara daiteke: langileen estatutua, Moncloako Paktoak, ANE, langabeziaren eta pentsioen gutxitzea,...

Orain ez dugu zalantzarik hura euskal langileria guztiaren aurka konzienteki diseinatutako eraso askoz eta gogor, eskalonatu eta iraunkor, baten izeberg punta besterik ez zela.

Euskal berreraiketa nazionalerako planak garatzeko oinarritzko industria birrintzen da.

Euskal langileria osoaren lan baldintzak eta bizi baldintza orokorrak aurrez-aurre erasotzen dira.

Autodeterminaziorako eskubidea ukatzen zaigu.

Azken batean, etorkizunean gure Subiranotasun Nazionalerako oinarriak finkatzeko beharrezko instrumento ekonomiko eta politikoak ukatzen zaizkigu.

Erantzunak erabatekoa izan behar du, ekintzara iristeko garaia iritsi da.


LABek gonbidatu egiten zaitu izpiritu honekin Maiatzaren 1ean, eguerdiko 12etan, Eibarreko Untzaga Plazan egingo den manifestazioan parte hartzera.

Bergarako LAB

OHARRA:

Gutunak sailera bidaltzen diren eskutitzak 20-25 lerrokoak baino txikiagoak behar dute izan eta bidaltzailearen izen-abizenak, nahiz eta izenorde batekin publikatu, eman beharko dira.

Tiira ba!



Josu Okina



□ Xaputz

Ostiralean, maiatzak 1, kalean jarriko da salgai *Xaputz, Institutuko ikasleen* errebista.

Lehen zenbaki honetako 48 orrialde eta 12 orrialdetako gehigarrian eritzi artikulu, erreportaiak, denbora-pasak etab. luze bat aurki daitezke. 800 aleko tiradarekin, *Xaputz* 150 pta.tan jarriko da salgai. Ongietorriak!

□ 42an jaiotakoak

Lehengo astean maiatzaren 9an 1.942ko kintoez beren eguna ospatuko zutela esaten genuen. Akats bat izan zenez, egun hori 1.942an *jaiotakoen ospakizun eguna* izango dela zuzendu beharra daukagu. Meza eta ondorengo afarira joan nahi dutenek *Goxo-Toki, Mizpildi, Lonbide* edota *Edelen* eman dezakete izena.

Eskeintza zabala astebukaeran Labegaraietako jaietan

Astebukaera honetan Labegaraieta izango dugu bere jaiak ospatuko dituen auzoa. Bertako Jai Batzordeak, aurten ere, egitarau zabala prestatu du ostiral eta larunbaterako. Ospakizunak ostiralean goizeko 10etan hasiko dira etxaleroen jaurtiketarekin. Ordu erdi beranduago, Labegaraietako Txirringularitza Laisterketa jokatu da eta eguardian, Musika Eskolako abesbatzak alaiturik, meza nagusia. Ordu batetan, salda, txorizoa, dantzariak eta herri-kirolak. Arratsaldean, tute txapelketa jokatuko da, izen-ematea ordu erdi lehenago itxiz. Bostetan, kukainak, burru-haundiak eta hankaluzek "Kukuma" rekin eta ondoren txokolatada.

Gauetan musika izango dugu protagonis-



ta ohizkoa denez. Larunbatean *Daxka, Requiem* eta *Fucking what!* talde bergarrek eskeiniko dute kontzertua, goizeko 4retan porrusalda banatuko delarik.

Rocka nagusi

Larunbatean, marrazki lehiaketa goizeko

11.30etan, mus txapelketa 4.30etan, mendi bizikleta lasterketa 5etan, kukainak eta buruhaundiak 6retan, herri txikiteoa 7etan eta, 11etan, rock jaialdia *EH Sukarra, Platero y tu* eta *Danba* taldeekin. Bukatzeko, 4retan porrusalda eta ondoren, 5etan, ohizko galtzontzilo lasterketa.

Lehen pelotakadak

Larunbatean inaguratu zen Elorregin pelotaleku berria. Jende ugari bildu zen bertan, Udaleko hainbat zinegotzi, Felipe Altuna Elorregiko auzo alkatea eta auzokideak tartean. Felipe Altunak, Javier Gabilondo eta Carlos Arrondok zinta moztu zuten eta ondoren, aureskua dantzatu eta beteranoen arteko pelota partida jokatuko zen. Lopategi eta Azpillagak ere bertso saioa eskeini zuten, bildutakoen txalo artean. Azkenik, egun berezi hau ospatzeko, auzokideek eta udal agintariek bazkaria izan zuten auzoko elkarteetan.



Kiroldegiko Taberna



Ondo pasau
jaiak!

Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

Txokolategia - Gozotegia

AMILOTX

Ozaeta 9
BERGARA

Tfnoa: 76 52 50

Ondo pasau jaiak!!

□ **Sierra Salvada**
Gorla Alpino Taldea eta *Pol-Pol Mendizale Taldeak Sierra Salvada "Tologorri"* ra joateko egun guztirako irteera iragarri dute nagusi-entzat maiatzaren 17rako. Irteera Plazan izango da goizeko 7etan eta joan nahi dutenek Pol-Polen eman dezakete izena.

□ **Jubilatuak**
Gipuzkoako 3. adineko zentruen arteko txapelketaren barne, Bergarako jubilatuen Egoitzan ondoko txapelketak jokatuko dira datozen bi asteotan: mus txapelketa 8 erregetara (maiatzak 4, astelehena), tute (maiatzak 6), briska (maiatzak 8), dominoa (maiatzak 11, astelehena), toka (hilak 11) eta oraindik fetxa zehazteke duen billar txapelketa. Ordu-tegiari dagokionez, kanporaketa guztiak arratsaldeko 3.30etan hasiko dira, 7etan hasiko den toka txapelketa ezik.



Herriko jaien atarian

Udaleko Kultura, Jaiak eta Gazteria Batzordeak zehaztu du dagoneko aurtengo Pentekoste jaietako programa. Aurreko urtekoekin konparatuz, badira zenbait nobedade aurtengo programan. Esaterako, ostiralean, ekainak 5, musika aukera zabala izango da hiru toki ezberdinetan; Cubako *Caribe Nibor* orkestra pelotalekuan, *Izadi* Plazan eta *EH Sukarra, Fucking what!* eta *Requiem* Bideberrin.

Aipagarri dira, era berean, larunbatean Agorrosinen jokatuko den

Euskadiko Sokatira Txapelketa, *Las Veneno* umorezko antzerkia eta *Los Clavos* eta *Spock* taldeen rock kontzertua.

Igandean Euskadiko Dantza Askatu Txapelketaren kanporaketak izango ditugu Plazan eta arratsaldean *Corrusco de pan* kale antzerkia eta filme emanaldia gauerdian. Astelehen eta astearteari dagokionez, aipamen berezia merezi dute estampa lehiaketak, JARDUNek antolatutako brusa lehiaketa, eta Eguzkiko baltsa lasterketak Deba Ibaian.

□ **Txillardegik**
Irakasleen Elkarteak antolaturik, datorren martitzenean hasita eta bost martitzenez, Txillardegik *Euskarazko gramatika* ikastaroa emango du Kultur Etxean arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean. Matrikula dohain izango da eta bertan parte hartu nahi dutenek astelehenerarte izango dute zabalik izen ematea Udaleko Euskara Zerbitzuan.

□ **Herri Urrats**
 Datorren igandean, maiatzak 10, *Senperen* ospatuko den *Herri Urrats*era joateko autobusa antolatu dute Aranzadi Ikastolak eta Udal Euskara Zerbitzuak. Irteera goizeko 8.30etan izango da Bergaratik eta buelta, berriz, 7ak aldera egingo da. Izena emateko epea ostegunera arte izango duzue zabalik.

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK:

Amillaga 1
 (B pabiloia)
 BERGARA

- Iturkintza
- Berogintza
- Gasa

Tfnoa:
 76 28 04

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta
 eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

GISASOLA BURDINAKI DENDA


"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



Polizi legearen aurka

Udaleko Enpresa Bartzordeak Eusko Legebiltzarra lantzen ari den Polizi legearen aurkako jarrera azaldu du aste honetan zehar Plazan eginiko konzentrazioetan. Astelehenetik asteazkenera bitartean eguarian bildutako udal langileen zenbait ordezkari, pankarta bat zabaldu eta, era berean, herritarrei legearen kontra azaltzeko arrazioen berri eman dietei.

Polizi legearen kontra azaltzen dira, diotenez, "besteak beste, udaltzainen eskubide galtzea, mili-

tarizazioa, zentralizatzea, greba eskubidea eta parte hartze sindikalaren debekatzea, arautegi diziplinarioa ezartzea eta lan errepresiboetan parte hartu behar izatea" bait dakartza.

Enpresa Komiteak mozio bat aurkeztuko du hurrengo Plenoan, Udalarari udaltzain guztien eskubide eta bete beharrak konbenioaren arabera mantentzeko eskatuz. Era berean, udaltzaingoa ordenu publiko integral lanetan parte ez hartzea eta bere lanpostuak ertzainek ez betetzea eskatuko dute.

Txinpartak

✓ **Iñaki Garmendia** bergararrak irabazi zuen igandean Gorlako Irubiden jokaturako *Herri arteko Plater Tiroketaren* 3. ihardunaldia. Jesus Mari Iburguren bergararra 4. izan genuen.

✓ **hamabostaldi Kulturalari** emango zaio hasiera ostiralean Elgetan, ogiminaz egindako lanen erakusketarekin.

✓ **1.965. urtean** jaiotako gizon zein emakumeek kinto afaria egingo dute larunbatean, maiatzak 2, *Piszinetako tabernan*. Aurretik Pol-Polen bilduko dira arratsaldeko 7.30etan.

✓ **Reptilen erakusketaren** hasiera atzeratu egin da maiatzaren 6ra arte. Plazan, astebetetz, suge, narrazti, krokodilo eta beste hainbat espezie ikusi ahal izango dira.

✓ **Odol emailleek** dei egiten dute datorren asteazkenean, hilak 6, Seminarioko lokalean, arratsaldeko 7etan, egingo den odol ematean parte hartzeko.

✓ **Juan Tabares** Pol-Pol Argazki Taldeko kideak lehen saria irabazi du Legazpin egindako Estatu mailako *Mendia eta Izadia Argazki Lehiaketa*.

✓ **ASPACEn aldeko pelota partiduak** jokatu dira larunbatean, maiatzak 2, gaueko 10.15etan herri pelotalekuan. Azken urteotan jaialdi hau antolatzeaz arduratu den Oxirondo Elkarteak Aspaceren omenaldia jasoko du.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

MINER Ardo onak, ardoa jakina

Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

MAKAILO


Makillau **ETXEA**
kazuelak
gertatzen ditugu

Ibargaral 15

Igandean izandako Gipuzkoako haurren IV. Koral Egunean

800 haur kantari

Gipuzkoa osotik etorritako 19 taldetan banatutako 800 haur Inguruk, IV. Koral Eguna ospatu zuten igandean Bergaran. Victoriano Gallastegi alkateak haurrei ongi etorria eman eta gero, herriko auzo eta kaleetatik zehar kantari eman zuten goiza 19 abesbatzek, eguerdiko ordu batetan San Martin Plazan berriz ere elkartzeko. Ekitaldiari amaiera emateko, haur guztiak bat eginda, eta Musika Eskolako Gazteen Bandaren laguntzarekin, Juan Martin Elexpuruk idatzi eta Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposatutako "Udaberrian Txoria" abestia kantatu zuten.



Bergaran



PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotzak .
 - Etxerainoko zerbitzua
- Merkatuan Tfnoa: 76 15 90
San Antonion Tfnoa: 76 21 08
Matxiategin Tfnoa: 76 21 91



zumelaga
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA
Tfnoa: 76 20 21

Tximak
Ileapaindegia

Fraikozuri 3, Tfnoa: 76 56 69

Elorregiko San Prudentzio

1.432 garren urtean Arostegitar Pero Ibañezek bere testamentuan 2.000 marabedi utzi zizkion Elorregiko San Prudentziori diru zuritan, eta beste 48 Lope izeneko ermita zaintzaileari.


Azpimarkatu dezagun garai zahar haietan azaltzen diren hitz hoiek: ermita, ermitaño eta Elorregi; eta agian azkeneko hau lehenbiziko aldiz Bergarako artxiboetan.

1.810 garren urtean ermita saltzea eta base-ri-etxe bihurtzea erabaki zen, bere ordezeleiza haundiago bat eraikitzeko asmotan. Gainera, urte horietan San Prudentzioko, Basalgoko eta Osintxuko eleiztarrek Kalahorra eta La Kalza-

dako Gotzaitegiari serbitzu gehiago eta ego-kiagoak eskatu zizkieten. 1.850 garrenean San Prudentziok bazeukan bere ermita berria eta 1.881an parroki bihurtu eta apaiz bat bertarako izendatu zuten.

Oraingo eleiza barendikan oso berritua eta garbia dago, San Prudentzioren irudia, gotiko itxura ederrekoa, 50 zentimetrotakoa, XV garren gizaldikoa da eta aurpegi paketsua dauka.

Gure aitonen garaietan San Prudentzioko jaiak ezagunak ziren eta jende asko joaten zen. Dena esateko, behin baino gehiagotan borrokan amaitzen ziren inguruko herrietako zenbaitzuekin, batzuetan ukabile-



tarako ibiltzen ziren manopla eta guzti.

XVIII garren gizaldian Bergarako Udaletxea eta Diputazioa oso arduratuta zeuden ermitetako jaietan gertatzen zirengatik eta erabaki estuak hartu zituzten onbideratu nahiean. San Prudentziori buruz Udaletxeak "tabernarik eta danborrik" ez bialtzeko

agindu zuen, "jairik arrisksuena eta exenplurik txarrenekoa" zenez.

Ondo bukatzeko azpimarratu dezagun erabaki horietan "San Prudentzion" esaten dela, ez "sanprudentziotarrak". Garbi gelditu daitezela gauzak.

Imanol Sorondo

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:
RAMON IRAEGUI



ORDEZKARIA
BERGARAN

Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA



VID-ART

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.

Azal eiguzu zure ideia
VID-ARTEk
gingo dizu.

BELANBIDE, Z/G • 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

ANTIA HARATEGIA
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi
eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

Maiatzaren Lehena, langileek euren erreibindikazioak aldarrikatzeko erabili duten eguna izan da beti, eta erreibindikazio horiek tokian-tokiko eta momentuan-momentuko gizarte arazoak isladatu izan dituzte. Aurten ere horrela izango da eta gainera, azken urteetako Maiatzaren Lehenik beroena izango da aurtengoa, zeren Carlos Solchaga Ekonomia Ministroak orain dela aste batzuk indarrean jarri zuen dekretuak, langabeziari buruzko dekretu berriak hain zuzen ere, langileen haserreak piztu arazi bait ditu.



hauek aipatu ditzakegu:

✓ Apirilaren 9ra arte, sei hilabete lanean eman eta kotizatu ondoren, hiru hilabete kobratu zitezkeen langabeziagatik. Gaur egun, berriz, gutxienez urtea egin behar da lanean, lau hilabeteko paroa kobratu ahal izateko.

✓ Langabeziagatik kobratzen den diru kopurua txikiagoa da dekretu berria indarrean jarri denetik: lehenengo sei hilabetetan soldata gordinaren % 80a kobratzen zen apirilaren 9ra arte eta gaur egun, ostera, % 70a; hurrengo sei hilabetetan lehen soldata gordinaren % 70a jasotzen bazen ere, orain, % 60a jaso ahal izango da. Hortik aurrera, 24 hilabetetan (6 urte kotizatu beharko da), soldata gordinaren % 60a kobratu ahal izango da.

✓ Dekretua indarrean jarri aurretik, langabezia edota subsidioa kobratzen zegoenak INEMek eskeintzen zizkion enpleguak (bi lan eskeintza) ez onartzeko esku-bidea bazuen ere, orain, eskeintza bati uko eginez gero, langabezia edota subsidioa kobratu gabe gera daiteke.

✓ Enpleguaren sustapenerako aldirateko kontratuak, lehen gutxi-

Langabeziaren dekretuak

aurtengo Maiatzaren Lehena markatuko du

Sindikatu guztiak Solchagaren aurka jartzean bat etorri badira ere, dekretuaren kontrako ekintzak antolatzerakoan tira-birak sortu dira: UGT eta CCOOek maiatzaren 28rako lau ordutako lanuztea iragarri dute eta ELA eta LABek, euren aldetik, beste bien jokaera kritikatu eta Euskal Herrian egun osoko Greba Orokorra egiteko asmoa

azaldu dute.

Aurtengo Maiatzaren Leheneko erreibindikazio nagusiak, Langabeziaren lege berria, Euskal Herriko berrindustrializazioa, eta ACENOR eta Bilboko Labegaraien egoera kezkarriaren ingurukoak izango dira. ELAk, aurreko urteetan pabiloi itxietan mitin-jaiak antolatu izan badu ere, aurten, UGT eta CCOOekin batera, hego Euskal

Herriko lau hiriburuetan manifestazioak iragarri ditu. Deba arroko LABek, bestalde, azken urteetan bezalaxe, Eibarren konbokatuko du manifestazioa.

Dekretuak dakartzan aldaketak

Apirilaren 9an indarrean jarri zen langabeziaren dekretu berriak dakartzan aldaketa nagusien artean honako

SOLANA

- Materialen erreuperazioa
- Kontenedore zerbitzua
- Zaborrak eta hondakinak



Uzarragara bidea, z/g. • 6 P.K. • ANTZUOLA
Tfnoa: Biltegia: 78 70 08. Etxekoa: 78 70 09

Mujika

Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

enez 6 hilabeterako egiten baziren ere, orain guxtienez urtebetekoak beharko dute izan. Kontuak-kontu, enpresarioek urtebeteko kontratuak egiteari uko egiteko aukera badute, legeak beste 14 kontratu mota egiteko aukera ematen bait die.

✓ Apirilaren 9tik aurrera, langabetuek ezin izango dute langabezia osoa batera kobratu, taberna edota beste edozein motatako enpresaren bat sortzeko, esaterako. Aukera hori, kooperatiba bat edota Sozietate Anonimo Laborala sortu nahi dutenei bakarrik ematen zaie.

✓ Langabezian dauden langile guztiek, sei hilabeteko subsidioa kobratu ahal izango dute, baldin eta sei hilebete lanean egin badute.

✓ Lehen sei hilabete lana egin eta kotizatu ondoren, 3 hilabete langabezia eta beste 18 subsidioa kobratu zitezkeen. Orain, oster, 21 hilabete kobratu ahal izango da, baina guztiak subsidioagatik.

Aldaketa honekin, 100.000 pezetako soldata gordina jasotzen duen langile batek, lehen baino 115.000 pezeta inguru gutxiago jasoko du subsidioagatik.

Sindikatuak Maiatzaren Lehenaren aurrean:



J. L. Aranzeta




"Maiatzaren Lehenerako gure lema **ETORKIZUNA JOKOAN DAGO** izango da. Euskal Herriko sare industrialia poliki-poliki behera etortzen ari da eta basamortua bihurtzen ari da, Bilboko Labegariak eta ACENOR itxi egin nahi dituzte, gure arrantzaleak eta nekazariak gero eta egoera txarragoan aurkitzen dira...; egoera guzti honen errudunak PSOE eta EAJ dira. Guzti hori gutxi balitz Solchagaren dekretua indarrean jarri berri da, eurok poltsikoak betetzen dituzten bitartean langabetuentzako neurri oso kaltegarriak jarri dituzte indarrean. Egoera honi aurre egiteko irtenbide bakarria borroka da..."

"**ORAIN ENPLEGUA**. Orain arte izan diren eraldakuntza industrialek lanpostuen galtzea ekarri dute bakarrik eta industria azpiegiturarik ez da sortu, horregatik ez dira lanpostu berriak sortu; beraz, azpiegitura sendoa moldatu beharra dago. Solchagaren dekretu hau ezin daiteke inondik inora onartu, jende asko egoera oso kezagarrian geratuko delako eta ikusten dugulako dekretoa, ondoren etorriko diren beste neurri batzuen lehenengo pausoa dela. UGT eta CCOOek maiatzaren 28rako greba deialdian izan duten jarrera ez dugu begi onez ikusten deiladi bateratua ez delako izan."



J. M. Aristegi



Ramon Romero



"**GREBA ESKUBIDEAREN ALDE, GIZA EUROPA-REN ALDE ETA DESENPLEGUAREN MURRIZKETAREN AURKA** dira Maiatzaren Lehenean erabiliko ditugun lema nagusiak, horrez gain ACENORen itxieraren aurka borrokatuko dugu. Gobernuak indarrean jarri duen dekretuak ondorio oso kezagarriak ekarriko ditu langileentzat, langabeziak pixkanaka-pixkanaka behera egin beharrean gora egin duelako. Maiatzaren 28rako 4 orduetako greba deialdia egin bada ere, Euskal Herrian egun osokoa izatea espero dugu."

"**OKERREKO BIDETIK DOAZ, HORRELA EZIN DAITEKE**, gure lema Maiatzaren Lehenerako. Solchagaren dekretuan oinarrituko dugu borroka Maiatzaren 1ean, lege berri hau oso atzerakoia baita langileentzat. Gainera, Deba Arroko langileok beste inongoak baino gogorrago jasango ditugu neurri hauek, hemengo enpresak egoera larrian aurkitzen dira eta. Maiatzaren 28rako greba deialdiarekin zerbait lortuko dugun ez dakigu baina nahita nahiez egin behar dela argi daukagu, lengile guztiek eskatzen dutelako."



Miguel Tola



EXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

AFA - BI

Manufakturak, S. L.

P.V.C. Arozgintza eta aluminioa
Veka Sistema (Alemaniarra)
San Lorentzo z/g Tfnoa: 76 50 92 - 76 21 59 BERGARA

Zubiberrri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



ETXE AUNDI

Negoio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS

oto istema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

Siaska


Dena zure
haurrarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

ONGI ETORRI Jatetxea

Tfnoa: 76 63 49,
ANTZUOLA

Sindikatuak behar bezala defenditzen dituzte langileak?



Martin Gantxegi
77 urte, jubilatua

Esperantza horrekin sindikatuta nengoen lehen, langileen alde borrokatzen zutelako.




Marina Diez
48 urte, etxeandrea

Baten batek behar bada bai, baina orokorrean ez dituzte langileak defenditzen.



Amaia Bengoetxea
25 urte, langilea

Ez nago sindikatuta, ez diet garrantzi gehiegi ematen sindikatuei.




Juan Juaristi
46 urte, langilea

Ez dut uste gehiegi defenditzen gaituztenik. Lehen, gaur egun baino gehiago.

SANTOS

IRRATI - TB



TB-Soinua-Bideoa
Antena instalazioak
Kanal Pribatuak
Sukalderako altzariak
Argiztapenak

Mahasterreka 2

Tfnoa: 76 26 10

BERGARA



Lehenengo sindikalismoa

Gure aurretikoari jarraituz, honela sartu ginen edo sartu ginduzen ELA erakunde. Gure herri honi dago-kionez erakunde honek buruzagi bat zuen, gehienetan guretatik zaharrenetakoa eta honek izendatzen zituen bakoitzari zegozkion ol eta lantegiak. Lantegi hura bakoitzaren ardurapean gelditzen zen; hilerokoa batu eta beste zenbait agindu eman.

Hileroko honen zenbakia lanaren sari edo asterokoen arabera zegoen lehenengo ohiturari jarraituz, geroztik, zenbaki jakinean gelditu zen.

Batzarrak, herriko ardandegi edo taberna izendatue-tan egiten ziren, asteen behin, badaezpada ere joku kartak aurrean agertzen zirelarik.

Urteak igaroaz gure lagun haiek beste batzueri bidea aske utzi beharrean aurkitu ziren, guk beste batzueri utzi beharra izan dugun bezala.

Gure ekintzak pozez eta baita nahigabez hornituak izan dira baina gaur egun ELA gure Bergara herri honetan bere sustraiak ondo lur jabetuak ditu.

Maiatzaren Lehenengo egun honetan langileriaren edo lanaren egun honetan, gure maitekor agurra eta zorionik biziena gure ekintza alperrikakoa ez delako izan.

Roman Uriarte
Sindikalista izandakoa



INEMeko sozioak

3 milioi inguru omen gara estatu espainiarreko langabe-tuak eta oraindik ere krisia gero eta haundiagotzen ari da, hori bai beti jende beraren kaltetan. Gurasoen etxetik independizatuko litzatekeen hainbat gazte eta beren fami-liak mantendu beharra duen beste hainbat jende duzu zerrenda etengabe horietan.

Birmoldaketak, lantegi-ixteak, milioi askotako iruzu-rrak... hori da gure begiek ikusten dutena. Eta oraindik, herri honek ez du ordaindu "europar" izatea kostako dena-ren erdia ere. Langabezia-subsidioak murrizten dizkigute, parao kobratzeko urtebete behintzat lan egitea eskatzen digute, etab. Europako beste nazio batzutan, aldiz, lana egitea nahiko da, besterik gabe, subsidioa kobratzeko.

Baina armada haundietarako, tren modernoentzako eta Expo-etarako ez da inoiz dirurik falta izango. Enpresa-riek sortzen duten lana ere, gehienetan aldibaterakoa da. Maiatzaren lehenari dagokionez, uste dut gaur egun ez dela behar bezain erreibindikaitzailea. Pegatina paparrean eramateko eta mitin ederrak botatzeko eguna da eta jatorriz zuen zentzua galdu duela uste dut.

Bestalde, orain ez dago langileen arteko elkartasunik, langileriak ez du multzo bat osatzen, ez dago langile kontzientzia kolektibo bat. Enpresa batek edo sektore batek duen arazoak ez du gainontzekoen elkartasunik sortzen eta era horretan oso zaila da «Mundu zabaleko langileok elkar zaitezte» zioen harako esaldi hura sinestea.

Fernando Albeniz
langabetua

REMENTERIA
Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

ATSEDEN ZENTRUA
LOKARTU
KOLTXOI-DENDA

Bideberri Ibiltokia z/G - Tfnoa: 76 05 01 BERGARA

JOSE
LUIS
eta
MIKEL

Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa

Urteaga 6, Tfnoa: 76 50 37 / 79 35 17

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

ZURICH

VITA

UNIBER



CAUDAL

HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



ANDUZU

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline
- P.V.C.
- Blokeak
- Pinturak

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

DENA 100

pzta. tan

Ireki berria

Simon Arrieta 3an




❑ Musika eta bideo-zintak

Gasteizko Irudi eta Teknologia Berrien Zentruko zenbait ikaslek Zaragozako El Frente taldeari egin dioten bideo musikaleko hainbat irudi gure herrian grabatu dira orain gutxi. *Volver a caer por amor* izeneko abesti eta diskoa promozionatzeko jadanik prest dagoen bideo honetan hainbat bergararrek ere hartu dute parte; Amala Labayen eta Elsa Manso Bergarako produkzioaz arduratu dira, Xabier Errasti "Jerras" elektriko eta extra lanetan ere aritu da eta, azkenik, gartzela zaharrean grabatutako irudietan agertzen diren preso gehienak bergararrak ditugu. Beharbada, gartzelatik Hollywooodera ihes egingo duten presoak. Nork daki!!

❑ Aldaketa

Udal Euskaltegiak Irizarreko

Jauregia utzi eta pasa da dagoeneko Bidekurutzeta 27. zenbakiko lokal berrietara. Udaletxean egin beharreko berrikuntza lanen eraginez, euskaltegiok hain beharrezkoa zuten trasladoa lortu dute azkenik. Lokalaren inaguraketaz gain, irail aldera aurten betetzen duten beren 10. urteurrena ospatzeko ekitaldiren bat antolatzeke asmotan dabilta.



□ 50 urte

Argazkian ager-tzen diren Isabel Gurrutxaga eta Felix Ormazabal bergarrek beraien ezkon-tzaren urrezko ez-taiak ospatuko dituzte larunbatean, maiatzak 2. Orain 50 urte Elgoibarko San Bartolome elizan ez-kondu eta denbora



honetan 3 biloba eman dizkieten 3 seme-alaba izan dituzte. Beraiekin ospatuko dute egun berezi hori, larunbatean esan bezala. San Pedro parrokian meza entzun eta ondoren, guztiak Mutrikura joango dira bertan bazkaldu eta egun zoragarria pasatzera. ZORIONAK eta ondo pasa!!




□ Cubaberri

Sorpresa handia hartu zuen Cuban egon berri den Ion Altuna "Oxan", Eginoko Bergarako berriemaieak. Hango taberna batetan bere lagunekin rona dastatzen ari zela, hara non ikusten dituen bi kubatar Berrigara irakurtzen. Ronaren efektuak izango ote? galdetuko zion bere buruari. Kubanoek ezetz, Fideli Berrigararen erreportaia bat eskeini geniola eta itxuraz biziatu egin dela. Bera eta kubatar guztiak, nola ez. Tirada gehitu beharko!!

Zertan dihardute ba?

ARANTZAZU LOIDI



Zorroagan Pedagogia diferentzialean lizentziaturiko 28 urteko bergarar honek eskuratu du Udalak lehiaketa publikora atera zuen Drogamenpekotasun teknikari lanpostua proba guztiak gainditu eta gero.

MAITE AGIRREBEÑA



Bergarako skilari gazte honek, 9 urtekin, Valdezkarain jokaturako Euskadiko txapelketan alebin kategoriako txapela eskuratu berri du. Martxoan, Geronan, 22. geratu zen Espaniako txapelketan.

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

Kailash

Zentro Esoterikoa

Parasikologi Zientzien Instituto
Hispano Amerikarrean diplomatutako
profesionalak.

•tarot-a •Hipnosia •Erresonantzia
Eskaerak: Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

JULIA
Frutadenda

Matxiategi 4 Behea BERGARA

Umore giroan

Lau pelota ikusten

Marinok pelota partidu larri bat zeukan. Ipuñ-batzailleei kasu eginaz zabaldu zen, pelota-lekuan, Marino edanda zeguala, ta jakina, dirua bere kontra atera zan. Baiñan Marinok partidu zoragarri bat egin eta irabazle geratu zan.

Etorri jakon Bidarte eta esan zetsan:

- Sekula eztok alako partidorik eñ! Zelan konpondu aiz uts bat bera eñ barik joko guztian?

- Ta Marinok, bengantzaz:

- Zelan eingo najuan uts ba? Jendiak leporatu jestan mozkorrakin, lantzian lau pelota ikusten najitxuan, eta naitxan-iez, txortara besakadia botata, lauretakoren bat azertau eitxen najuan...



Neu be programan nagok

Bein batian Mondragones atzelari zeukala, partidua aurrera zoian, baiña gure Marino estreñatzeko aurkitzen zan. Joku guztia mondragotarrak zaroian. Marinori pelota bat be ez zetsan lagatzen. Azken batian, aspertuta, diadar egin zetsan Mondragonesari.

- I Bautista, ni be programan naok!

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak


Errege bideak

Gaur egun gertakizunek daramaten abiada ikusita eta telebistak pertsonaia famatuekiko ematen digun gertutasun faltsuagatik oso anakronikoak egiten zaizkigu ez hain aspaldi jasotako gertakizun batzuk.

Adibidez 1.828an Fernando VII.ak Doña Maria Amaliarekin Zaragozatic Gaztelara egindako bidaia, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Gaztelatik pasatuz. Maiatzaren 15etik abuztuaren 11ra arte (bakarrik) iraun zuen, herri inportanteenetan atsedendaldi laburrak eginez.

Bergaran ekainaren 12, 13 eta 14an egon ziren eta Moia etxean hartu zuten ostatu. Herri eta eliz agintariak aurrez instruzioak jasoak zituzten prestatu eta egin behar zutenari buruz eta baita erregeen aurrean jardun behar zutenean eraman beharreko zeremonia

konplikatuari buruz ere: ongi etorria eman eta agur egin kanpai guztiak joz, kapera pribatua atondu, meza nagusia prestatu elizan, eskumainen eta erreberentzien ekitaldiak bideratu, e.a.



San Antonio egunez erregeak San Pedrorra joan ziren mezatara eta pentsatzekoa da, errege bat "direktoan" ikusteko aukerak sarri izaten ez zirenez, eliza ikusminez betetako bergarrez gainezka egongo zela.

Juantxo Madariaga


Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskoziuri 6, Tfnoa: 76 56 62

Garnish
Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57



POL-POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

□ **ASPACE**

Oxirondo Elkartek ASPACERen aldeko pelota jaialdia antolatatu du larunbat gauerako. 10.15etan hasita, honako partiduak jokatu dira: Murua-mendiaraz anaiak/Samaniego-Gutierrez (jubenilak), Ansola-Andueza III./Begiristain-Atano III. (beteranoak) eta Lejardi-Azkarate/Lujambio-Beloki (afizionatuak).

□ **Pala**

Igande honetan pala txapelketan parte hartzen duten 14 bikoteek atsedena izango dute. Orain arte jokatuak 4 ihardunaldien ondoren, A multzoan, Txopitea-Guezala eta Garmendia-Peñalba ditugu bikote onenak. B multzoan, berriz, Etxaniz-Iñarra eta Laskurain anaiak beren partidu guztiak irabazi dituzte.



Rafael Alvarez garaile

Domekan jokatu zen azken ihardunaldiaren ondoren, Rafa Alvarez barakaldarrak eskuratu zuen aste osoan zehar Bergaran jokatuak barakarkako Euskadiko Xake Txapelketa. Behin aste osoko puntuazioa zenbatuz gero, esan bezala, Rafa Alvarez izan genuen txapeldun (jokoan ziren 7 puntuetatik 6 lortu zituen), Manu Gomez Portugaletekoa bigarren (5,5/7) eta, azkenik, Felix

Izeta txapeldun ohiak 3. postuarekin konformatu behar izan zuen (5/7).

Maila oso altua izan duen txapelketa honetan bergarrek ere paper bikaina burutu dute; Martin Arriaran 13. sailkatu da (3,5) eta Andres Diez, 3 punturekin, 18. geratu da. Migel angel Muela Euskal Xake Federazioko kideak oso potibotzat jo zituen antolakuntza zein jokalariek erakutsitako jokoa.

□ **Muskulazioa**

Udal Kirol Zerbitzuak muskulazio ikastaroa iragarri du maiatzaren 9rako. Goizeko 10etatik 12.30etara bitartean igerilekuko gimnasioan diren makinak erabilpen egokia eta beste hainbat gomendio emango dira. Bazkideentzat dohain izango da ikastaroa eta gai-nontzekoek 500 pta. ordaindu beharko dituzte. Izena emateko epea bezperan bukatuko da.

□ **Bergara lider**

Azken ihardunaldian Azkueneren aurka 2 eta 0eko emaitzaz galdu ondoren, Bergara futbol taldeak ezin du gertzen zaizkion 5 partidutan hutsik egin sailkapeneko lidergoari eutsi nahi badio. Ostiralean, 16.45etan., partidu oso garrantzitsua jokatu du Agorrosinen Intxaurrendoren aurka.



Gaztetxoeren ordua

Igandean hasiko dira Institutuan eta ipintzako futbol zelaian Bergara Kirol Elkartek antolaturiko benjamin eta alebin kategoriako futbol txapelketak. Alebinetan 6 eta benjaminetan beste bi talde dira izena emana dutenak. Hemendik ekainera arte jokatu diren partiduetan datorren denboraldiko elkarteko talde gazteetan joka dezaketen jokalariek fitxatzeko asmoa dute antolatzaileek. Izan ere, eskola arteko txapelketekin batera, honako txapelketak izan dira beti Bergara futbol taldearen harrobirik emankorrena. Igandeko partiduak goizeko 10etan hasiko dira.



Las Postas

KAFETEGIA - JATETXEA

Logroñorako bidean (Gasolindegian)
Tfnoa: (941) 10 02 85

LAGUARDIA
(ARABA)

LETE

TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.
☎ 79 23 83 ARRASATE
☎ 76 12 24 BERGARA
☎ (94) 681 76 19 IURRETA



Madura A. T. eta Bildur Gutxi

Goiko argazkian, "Madura A.T.". Herri mailako 4. futbol txapelketa, edozein adineko jendearentzat. 1974-75 denboraldia izan zen eta Madura A.T. taldea 4. sailkatu zen. Hona zeintzu diren ezkerretik eskumara:

Zutik: Jausoro, San Jose, Manolo Boizas, Unzueta eta Bigen Aranzabal. **Makurtuta:** Jesus Rodriguez, Mendizabal, Agustin Agirre, Beitia eta Albisua.

Jose Luis Beitiak utzi digu argazkia.



Beheko argazkian, "Bildur-gutxi" futbol taldea. 1944. urtean ateratako argazkia da. Hona hemen zeintzu diren: **Zutik:** Jose Kruz Iturbe, Joxe Lazkano, Karmelo Lizarralde, Imanol Aspiazu eta Luis Larrañaga (Kikio). **Makurtuak:** Joxe Iñasio Gallastegi (G.B.), Ion Lizarralde, Juan Muniategi (atezaina) eta Juan Suinaga (G.B.)

Toribio Jauregiren argazkia da, Kikio/Pertxak utzi duguna.

Estepan Plazaola

ederTU

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK

Barrenkale 23

Tfnos: 76 29 65

BERGARA

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale 35, Tfnos: 76 17 27

ETXEBIZITZA

Harane Errekan garajea salgai. ☎ 76 39 11.

Etxebizitza salgai Artzamendin. ☎ 76 10 10 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 61 (arratsalde).

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Bi apartamentu alokatzetan ditut: bata, Gandiako hondartzan eta bestea Bellreguart-eko (Gandia) hondartzan. ☎ 96-286 66 12 / 96-286 85 41.

Pisua salgai Ozaetan. Ganbara, garaje eta guzti. ☎ 76 51 52.

Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauez.

Garajea salgai Espalioan. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

Pisua salgai Urteaga kalean. Sukaldea, 3 gela, saloia eta bainu gela. Amueblatuta. ☎ 76 14 87.

Garajea salgai. ☎ 76 23 38.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

SALDU-EROSI

Yamaha SR-250-E, salgai, SS-AH matrikula. ☎ 76 52 30.

6-8 urtekoentzako Fondoko eski pare bat salgai. 5.000 pzta. ☎ 76 32 69.

Mendiko bizikleta salgai, MENDIZ markakoa, Shimano Deore-rekin ekipatua. ☎ 76 49 56 (gauez).

Dantzaldietan, bodetan e.a.etan ibiltzen den taldeak tekilista bat behar du. ☎ 73 01 17.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiautomatikoa salgai. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Musika jotzeko bateria salgai. ☎ 76 53 55.

Amnstrad konsola salgai, hiru jokurekin. ☎ 76 53 67.

PENTAX objetiboa, 28-80, F: 3,5 salgai. 15.000 pzta. ☎ 76 28 55.

VIVITAR objetiboa, 70-210, F: 4-5,6 salgai. 10.000 pzta. ☎ 76 28 55.

Mendiko bizikleta (hiru koloretako MBK) galdu zait Mahasterrekako etxe berrietako garajeen. Topatzen duenak dei nazala mesedez. ☎ 76 25 45.

GOLF GTI, SS. AB matrikula, salgai. (1.300.000 pzta). ☎ 76 04 22 (gauez).

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. Manuala eta automatikoa. Berri-berria. ☎ 76 56 90 / 80 15 38.

3 ateko AX GT-ko baka bat salgai. ☎ 76 24 81, iluntzeko 8etatik aurrera.

Ski alpinoko bota pare bat (43a) salgai. Berri-berriak, 2 hilabete. ☎ 76 38 72. Alex.

LANA

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.

B1, B2, C1, C2 eta D gidatzeko karneten jabe den mutil batek, transportista, ambulanzia gidari, e.a.-etako lanak egingo lituzke. ☎ 76 20 63.

Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

Mutil batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 03 31.

Neska batek edozein motatako lanak egingo lituzke. ☎ 76 21 70.

Kimikako klaseak hartu nahi ditut. L.H. 2. maila. ☎ 79 50 53 (Jon).

Hildakoak

Jesusa Markiegi Olañeta
apirilaren 24an, 94 urte

Jaiotakoak

Miren Fernández Larrañaga
apirilaren 12an
Itziar Casanellas Alzelai
apirilaren 25ean

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara


ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

BOLINTXO
Okindegia

San Juan Tfnoa: 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
Tfnoa: 79 63 42 ARRASATE

JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



ZERAMIKA ETA SANITATE GIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorenzo Poligono Industriala, Amillaga 10, behea. Tfnoa: 76 03 30 • Faxe; 76 02 91. BERGARA



ASEGURU ARTEKARIAK

- ✓ Etxeko arrisku askotarakoa
- ✓ Garraioak
- ✓ Autoak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Pentsioetarako planak
- ✓ Istripuak
- ✓ Subsidioa
- ✓ Komertzioak
- ✓ e.a.

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA